



EBAZPENA, 2022KO UZTAILAREN 15EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNEN, BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENAREN ETA ORDEZKAPEN BERTIKALAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO.

- 1.- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 527. artikulua araberako, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapenen bidez beteko dira aldi baterako, eta 514. artikulua, berriz, lanpostu huts bati atxikita zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzea aurreikusten du.
- 2.- Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 69., 73. eta 74. artikuluetan arautzen du zerbitzu aktibora itzultzeari, zerbitzu-eginkizunei eta ordezkapenei buruzko gaia.
- 3.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen du.
- 4.- Deialdi honen xedea da I. eranskinean adierazitako lanpostuak zerbitzu-eginkizunen, behin-behineko atxikipenaren eta ordezkapen bertikalaren bidez aldi baterako betetzea.
- 5.- Zerbitzu-eginkizuna, behin-behineko atxikipena eta ordezkapen bertikala eskatu ahal izango dituzte Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako, Laguntza Judizialeko eta Auzitegiko Medikuen kidegoetako Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioek.
- 6.- Lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.
- 7.- Eskabideak: hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, www.euskadi.eus/zerbitzuak/1205002 helbidearen bidez.
- 8.- Behin-behineko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian. Argitaratzen denetik hiru egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.
- 9.- Behin betiko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 15a

Jon Arturo Uriarte Unzu
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES

ANEXO

Probintzia	Herraldia	Destino zentroa	Lapostu/ dotazioa	HE	Deribotasun data	Kidegoa	Oharra
Araba/Alava	VITORIA-GASTEIZ	ZIGOR-ARLOKO ZULUP - INSTRUKZIO-TALDEA	580022/3	2	31.01.2010	IPAK	GU
Bizkaia	BARAKALDO	SCPG-ERREGISTROA/BANAKETA ATALA	480030/1			PAKK	GU
Gipuzkoa	DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	SCPG-BESTE ZERBITZU BATZUEN ATALA	480056/4			PAKK	JN
Gipuzkoa	DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	ZULUP SOZIALA	580049/1	2	31.01.2015	IPAK	JN
Bizkaia	GETXO	SCPG-ZERBITZU OROKORREN ATALA	580003/34			IPAK	JN
Bizkaia	BILBAO	ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 6 zk.	505106/20			IPAK	JN
Bizkaia	GETXO	SCPG-EXEKUZIO ATALA	580003/29			IPAK	GU
Bizkaia	BILBAO	11. GIZARTE-ARLOA	505104/50			IPAK	JN
Bizkaia	BILBAO	11. GIZARTE-ARLOA	505104/51			IPAK	JN
Gipuzkoa	ZARAUZ	ZARAUZKO BAKE EPAITEGIA	680015/12	2	31.01.2010	LIK	JN
Bizkaia	ABANTO Y CIERVANA- ABANTO ZIERBENA	ABANTO-ZIERBENAKO BAKE EPAITEGIA	480008/25			PAKK	JN
Bizkaia	DURANGO	SCPG-EXEKUZIO ATALA	580003/40			IPAK	GU
Bizkaia	BARAKALDO	ZIGOR-ARLOKO ZULUP -INSTRUKZIO TALDEA	480034/5	3	31.01.2015	PAKK	GU /sindikatu-liberazioagatik ordezkapen bertikala